

## ASTEARI ZEHARKA BEGIRA

Baliabide publikoen hustuketa  
planifikatua ISIDRO ESNAOLA > 3

GENERO INDARKERIA: Migrantei  
maizago eragiten die, eta zailago  
dute babesa lortzea > 4

2021eko abuztuaren 21a | XV. urtea • 736. zenbakia  
0,50 euro

# GAUR8

mila leiho zabalik  
[www.gaur8.info](http://www.gaur8.info)



**GARAZI GOIA: «NIRE IDENTITATEA ETA  
EUSKALDUN IZATEAREN BALIOAK INDARTU  
EGIN DIRA LONDRESEN» > 18** Jon URBE | FOKU



**Genero indarkeriak maizago  
eragiten die migranteei eta zailago  
dute babesa lortzea** 04

**Betiereko galtzaileak** 07

**In fraganti: Beñat Lasagabaster,  
Dazz klubeko arduraduna** 10

**«Eta maita herria...» Gerardo  
Mungiak onduriko pastoralaren  
zortzigarren atala** 14

**Elkarrizketa: Garazi Goia,  
Komunikazio aditua eta idazlea** 18  
**Juantxo Egañaren behatxulotik** 23



**SINADURAK:**

- 03 **Isidro Esnaola:** Baliabide publikoen hustuketa planifikatua
- 08 **Saioa Aginako Lamarain:** Praktika gaiztoen glosa bilduma
- 09 **Mikel Zubimendi:** Txikimunduetan aspertuta
- 13 **Unai Gaztelumendi**
- 16 **Antton Izagirre:** Hemengoak eta hangoak
- 16 **Miren Azkarate Badiola:** Karrikan kalaka kolokan
- 17 **Itzea Urkizu Arsuaga:** Aje horri
- 22 **Txelo Ruiz eta Montse Maritxalar:** Diseinu Unibertsala edo Denontzako Diseinua

{ datorrena } **Isidro Esnaola**

# Baliabide publikoen hustuketa planifikatua

**Z**aldibarko zabortegia kolapsatu zenean, EAEn jarduera kaltegarriak kudeatzeko moduari buruzko xehetasunak ateratzen hasi ziren. Jakin genuen, adibidez, 2000. urtean Gasteizko Gobernuak osasuna arriskuan jartzen zuten industria jardueren jarraipena egiteari utzi ziola. Agindua Josu Jon Imaz Industria sailburuak sinatzen zuen. Modu horretan eraginkortasun eta arintasun administratibo handiagoa lortzen zelako justifikatzen zen. Jakina, administrazio izapiderik gabe, arintasuna da nagusi; baina segurtasunaren gaineko kontrola ere galtzen da. Eta horrela, azkenean Zaldibarko zabortegia erori zen.

Enpresa pribatuen autorregulazioaren beste adibide bat Iberdrolak eman berri digu; izan ere, elektrizitatearen prezioak errekorrak lortu dituela aprobetxatuz, udan bi urtegi hustu ditu baimendutako gutxieneko bolumenean utzi arte; administratiboki ezarritako gutxieneko hori gabe, hutsik egongo lirateke. Garrantzitsuena da mozkinak pilatzea. Denetan interesgarriena da prezioen eskandalua hain handia dela, ezen aste honetan, bat-batean prezioa 20 euro baino gehiago jaitsi baita; ez gasaren prezioa, ez berriztagarriak, ez bestelako azalpen ofizialik. Gobernuarentzako eta oligopolio elektrikoentzako irudiaren kostua hain handia zenez, jaistea erabaki dute, nahi duten prezioa finkatzeko gaitasuna dutelako. Merkatuaren itxura dago, baina errealtatean enpresa gutxi batzuen kontrol zorrotza dago.

Autorregulazioak hain ondo funtzionatzen duenez, oraindik esku pribatuetan ez dagoena, hala izateko bidean da. Hilaren hasieran, Onkologikoko enpresa batzordeak salatu zuen pazienteak eta bertako profesionalak zentro pribatuetara bideratzen ari zirela. Orain, bularreko minbizia duten gaixoak Donostiako Ospita-

lean tratatzea erabaki du Osakidetza. Urrats horietan, Kutxaren gizarte ekintzaren ondorioz minbizian espezializatutako zentro bat ospitale huts bihurtuko da, eta horrek aseguru pribatuei baino ez die mesede egiten. EAJren erabaki politikoa da enpresa pribatuekin lehiatzeko ahalmena duen edozein ekimen publiko desagertzeko bidean jartzea.

Hori da, hain zuzen ere, Euskaltekin egin dutena. Abuztuaren 13an 9 urte bete ziren Euskalteli zuntz optikoaren sare publikoa saldu ziotenetik. Salmenta bat baino gehiago ondasun publiko bat oparitzea izan zen, enpresa pribatu baten balioa handitzeko erabateko pribatizazioari begira. Astearte honetan kotizatu zuen azkenekoz burtsan, inbertsio funts batek erosi ondoren. Buelta asko eman ondoren, esku pribatue-

Garai batean, bazirudien Espainiako Gobernuak independentzia ukatzearen ondorioz EAJk herria eraikitzea erabaki zuela, funtsezko sektoreetako enpresetan posizioak hartuz

tan gelditu da Euskaltel, EAJko gestoreek orduan aurreikusi zuten moduan.

Garai batean, bazirudien Espainiako Gobernuak independentzia ukatzearen ondorioz EAJk herria eraikitzea erabaki zuela zeharkako bidea erabiliz, hau da, funtsezko sektoreetako enpresetan posizioak hartuz: BBVA, Iberdrola, Euskaltel... Gaur egun argi dago bide horrek ez duela inora eramaten. Argi dago ere EAJren kezka bakarra dela enpresa pribatuei ahalik eta baldintza hoberenak eskaintzea euren mozkinak handitzeko. Helburu hori erdiesteko ongizate estatua desegiten ari da. Gero eta palanka gutxiago gelditzen dira herri eraikuntzan erabili ahal izateko.

# INDARKERIEN KAIOLA

Genero indarkeriak maizago eragiten die migranteei eta zailago dute babesak lortzea

 **JENDARTEA** / Maddi Txintxurreta Agirregabiria

Emakume migranteeek gehiegizko errepresentazioa daukate estatu espainoleko genero indarkeriari buruzko estatistiketan. 2003 eta 2019 artean indarkeria mota honengatik hildako emakumeen herenak baino gehiago atzerritarrek ziren. Gainontzekoei baino zailagoa zaie, gainera, babes juridikoa edo soziala lortzea.

**P**atricia estatu espainolean bizi den emakume mexikarra da. 38 urte ditu. Gizonarekin bizi zen, gizonaren irain eta oihuekin. Adikzioa sortzen zioten bideo jokoek eta pornografiak gizona-

ri eta agresiboa zen, agresiboa- goa adikzioen mendeko zenean. Sarri jo zuen Patricia eta gero barkamena eskatu. Patriciak us- te zuen arazo psikiatriko bat zeukala. Behin itsasgarria erori zitzaion gizonari bularrera eta haserretu egin zen, baina Patricia- rekin. «Denaren errua nirea

zen», kontatuko zuen gero an- drazkoak. Emazteari oihuka hasi zen gizona: «Goitik behera arra- kalatuko zaitut txerri baten mo- dura. Zure familiak ere ez zaitu ezagutuko. Zakarretan aurkitu- ko zaituzte txerri bat bezala». Patricia beldurra disimulatzen saiatzen zen. «Barkatu, oso es- tresatuta nago», esaten zion gi- zonak. Baina gero berriro asal- datzen zen.

Gizonaren beldur zen Patri- cia, noizbait hilko zuelakoan. Anaia, etxean arrebak bizi zuen egoeraren jakitun, laguntzera azaldu zenean, anaia eta bera hilko ote zituen beldur zen Pa- tricia. Eta ama izan zenean, haurra, anaia eta bera hilko zi- tuen beldur zen.

Mehatxu egiten zuen gizonak, esanez bere anaia, paperik gabe-

Eraso matxista bat  
salatzeko mobilizazioa  
Berrizen.  
Monika DEL VALLE | FOKU



ko etorkina, salatuko zuela. Gizona agresibo jarri zeneko batean, Patricia bizilagun batengana joan zen laguntza eske, eta honek ez molestatzeko, afaltzen ari zela, esan zion.

Mexikora ihes egiten saiatu zen, haurrarekin, baina gizonak salaketa jarri eta zaintza partekatua ebatzi zuen epaileak.

#### INDARKERIAREN AURPEGIA

Indarkeria matxista egiturazkoa dela jakina da eta, hortaz, emakume orori eragiten diola baita ere. Badira zenbait emakume, ordea, are eta gordinkiago pairatzen dutenak biolentzia mota hau, feminismo intersektzionaren teoriak berretsiz. Indarkeriek bat egiten dute, hala, zenbait gorputzetan, emakume migranteen kasuan, adibidez.

Hala dio “Tirar del Hilo: historias de mujeres migradas supervivientes de violencia machista” azterlanak. Gai Iberoamerikarren Ikerketa eta Espezializaziorako Elkarteak (AIETI, gaztelaniazko sigletan) eta Red Latinas emakume latinoamerikarrek osatutako taldeak aurten ondu duten ikerketak agerian uzten du indarkeria matxistak modu berezian eragiten diela migrantei: estatu espainolean indarkeria matxistaren ondorioz 2003 eta 2019 artean hildako andrazkoen %33 migranteak ziren.

Emakume kanpotarrak «gainerrepresentatuta» daude estatuko genero indarkeriari buruzko estatistiketan. Gizonek hildakoak nola, indarkeria matxistagatik salaketa jartzen dutenen %33 ere migranteak dira.

Datuok 15 urtetik gorako emakume populaziora estrapolatuz gero, genero indarkeriagatik 29 hil ziren estatuan bizi den milioi bat biztanle migranteekiko; jaiotzez estatukoak direnen artean, berriz, 5 emakumeri era-



Indarkeria matxista salatzen Bilbon egindako performance-a, 2015ean.

Monika DEL VALLE | FOKU

gin zien estatuko milioi bakoitzeko. «Honek eramaten gaitu baiezatzera genero indarkeriak indar bereziz eragiten diela emakume migratuei», ondorioztatzen du ikerketak.

Gainera, andrazko atzerritarrek gainontzekoek baino babesgabetasun maila handiagoa pairatzen dute genero indarkeriaren aurrean. Emakumearen Gaineko Indarkeriaren Estatuko Behatokiaren X. txostenaren arabera, 2006 eta 2016 artean indarkeria matxistak hildako emakumeen %25ek salaketa jarri zuten aurretik erasotzaileen kontra. Soilik migranteak hartuta, %38ra iristen da salaketa jarri zutenen kopurua.

Zenbakien atzeko aurpegiak asko dira. Txostenak jaso ditu horietako 19ren testigantzak, bizirik dirautenenak. Patricia-rena, adibidez. Ibilbide bakoitzeko oztopoek, zailtasunek eta behar espezifikoek erakusten dute genero indarkeriaren ikuskera estuari nola egiten dioten aurre.

Testigantza bakoitzeko indarkeriaren esperientziak oso desberdinak dira, baina, oro har, emakumeen atzerritartasunak eragindako zaurgarritasunak zeharkatzen ditu, baita estatu espainolean laguntza eskatzeko edo babes eta arreta sistemetara sartzeko dituzten oztopoek ere.

#### BABES FALTA

Egitura politiko, sozial, ekonomiko, kultural eta ideologikoen baitan, bakoitzean eta denetan aldi berean, zedarritzen da indarkerien moldea, eta emakume bakoitza desberdin erasaten du. Zaurgarriagoak dira migranteak, zentzu horretan, gainontzeko emakumeak baino, “Tirar del hilo” lanaren arabera. Atzerritartasun Legea, sarri, andrazkoak mehatxatzeko



tresna gisa erabiltzen dute erasotzaileek, emakumeak ez dezan hitz egin. Batzuetan biktimetik ez dituzte ezagutzen helmuga herrialdeetan indarkeria matxista salatzeke dau den legezko bideak.

«Gutxi dira salaketaren, prozesu judizialaren, babes aginduaren eta erasotzailea kondenatzen duen epai irmoaren bidea hartzen duten kasuak. Oro har, hori ez da gertatzen, zenbait emakumek ez zutelako salaketarik egin; eta salatu zuten artean, alderdi garrantzitsu batek lekukotzat deklaratzeari uko egin zion, eta horrek balio gabetu egin zuen prozedura penaletan funtsezko kargu proba», jasotzen du azterlanak.

Lagun edo familia sareak jatorrizko herrialdeetan dituzte askok; horrek laguntza eskatzeko aukerak murrizten dizkie.

Eta soluzioak edo, bederen, ihesbideak, zailagoak dira migranteentzako, babes bila doa-

zenez, batetik, agente polizial, juridiko edo sozialen jardun ezegokiarengatik eta, bestetik, babes sistema arrazista batekin egiten baitute topo: «Esan beharra dago esaldi horietako batzuek zabaltzen duten diskurtsoek etnozentrismoaz eta instituzioetan irauten duen klasisismoaz ohartarazten dutela: biktimen testigantzak genero, klase eta etnia nagusitasuneko ikuspuntutik entzuten dira».

Hori gutxi ez eta, indarkeriazko egoeretatik irteteko laguntza eskatzen duten unetik aurrera emakumeek auzipetze soziala jasaten dute sarri. «Genero indarkeria ezkutuko da», zehazten du azterlanak. Kasu batzuetan, babes eta arreta baliabideetako profesional batzuek agerian uzten dute ideia hau: «Emakumeak salaketei etekina ateratzen saiatzen direla, edo ezjakinak direla, lehenago gertaerak ez salatzegatik. Modu nabarmenagoan edo sotila-

goan, indarkeriaren erantzule izatea leporatzen zaie».

Bestalde, txostenak dioenez, emakume migratzaileek «neurri txikiagoan» jasotzen dituzte genero indarkeriaren aurkako laguntza ekonomikoak: 2006 eta 2015 artean emandako dirulaguntzen hartzaileen %8 soilik ziren atzerritarrak.

**BOSGARRENEAN PLANTO**

Cristinarena da «Tirar del hilo» lanak jasotzen duen beste ahotsetako bat. Kolonbiarra da bera eta gizon espainiar bat ezagutu zuen estatura mugitu zenean. Haurdun geratu zen eta, ordura-

**Estatu espainolean indarkeria matxistaren ondorioz hildako andrazkoen %33 migranteak dira, «Tirar del Hilo» txostenaren arabera**

**Indarkeria matxistagatik hildako emakume migranteen %38k salaketa jarrita zuten erasotzailearen aurka genero indarkeriagatik**

Sestaon hilketa matxista bat salatzeke egindako elkarretaratzea.  
Aritz LOIOLA | FOKU

ko, ohartuta zegoen bikotearen jarrera agresibo batzuez. Gaztea zen orduan.

Lehenengoz bere bikotearengandik banatzea haurdun zegoela erabaki zuen. Maletak hartu eta ahal zuen gehiena urrunduz. Erasotzaileak topatu egin zuen, ordea, eta bueltatu egin zen Cristina. Indarkeriak gora egingo zuen aurrerantzean. Haurrak bi urte zituela bortizki egin zion eraso aitak eta orduan berriz erabaki zuen Cristinak alde egitea, harik eta erasotzaileak berriro bueltatzeko eskatu zion arte. Haurrarenegatik itzuli zen.

Bost aldiz egin zuen alde, eta lau aldiz bueltatu zen. Azken eraso fisikoaren ondoren ez zen gehiago itzuli, jada bi haur zituela. Dioenez, lagunak ondoan izan zituen aurrera egiteko.

30 urte pasatu dira ordutik. «Oso emakume ausarta naiz, guztiarekin, tratatu txarrekin, bizipen guztiarekin eta denarekin. Emakume ausarta naiz», dio orain.



Dibyangshu SARKAR | AFP



## IKUSMIRA

# BETIEREKO GALTZAILEAK

Kuban sareen bidez jakin zuten beren «matxinadaren» berri, AEBetatik zabaldu ziren mezuak irakurrita. Afganistanen aspaldi jakin zuten neurri handian Kubako «matxinada» eragin omen zuen egoeraren erantzulea negoziatzen zebilela talibanekin. Afganistandarrek babesteko haien herrialdea okupatu zuenaren tropak AEBetara itzuli dira, Afganistanera iritsi ziren bezain lotsagarri, eta afganistandarrek ez dute sareen bidez jakin.

Europar Batasunean Afganistango gertaerek kezka eragin dute, duela zenbait urte Ekialde Hurbileko gatazkek eragin zuten exodo handia ez ote den berriro gertatuko. Turkiak, arrisku hori dela-eta, bere migrazio politika gogortuko duela iragarri du. Afganistandarren egoerak, haien ziurgabetasunak, ez du elkartasunik eragin, beldurra baizik. EBk talibanekin hitz egingo du; irabazleekin, alegia. Terroristekin ez omen zegoen hitz egiterik; galtzaileekin ere ez, nonbait. Ez terroristak direlako, galtzaileak direlako baizik. Nork hitz egingo du afganistandarrekin, berriro ere, hamaikagarrenez, gerra galdu dute eta? Xabier Izaga Gonzalez



**Saioa Aginako Lamarain**  
Psikoterapeuta

## Praktika gaiztoen glosa bilduma

**T**eknologiarekiko mendekotasunak markatutako gizarte honetan, ez da harritzekoa harreman asko online hastea. Sare sozialen garapenarekin, harreman afektiboak zenbait aldaketa izaten hasi dira. Bihotz-sastadak Instagramen bihotzetan neurtzen dira; eta pertsona zehatz baten Facebookeko “atsegin dut” batek eguna alaitu diezaguke. «Ghosting» edo «benching» bezalako hitzak ezarri dira hiztegi herrikoian, praktika koldar eta gaiztoei izena emanez. Komunikabide horiek gure harremanak eraikitzeke modua aldatu dute, batez ere, bikote harremanak eta adiskidetasun harremanak eraikitzeke (eta suntsitzeko) modua.

«**Ghosting**»: Ezer esan gabe harreman batetik desagertzeari deitzen zaio. *Ghost* hitzak «mamua» esan nahi du eta ghosting egiten duena, mamu bihurtzen da goizetik gauera. Harreman bat hasten denean, bertan parte hartzen duten pertsonak onartzen dute harreman horrek jarraitu egiten duela batek amaitu nahi duen arte. Arrazoizkoena da une hori denboran markatuta geratzea komunikazio ireki baten bidez, besteak lotura amaitu dela uler dezan. Hain begi bistakoa dirudien hori ez da argia heldu askorentzat. “Mamu” hauek bat-batean urrundu egiten dira eta, euren urruntzearekin, besteak harremanari amaiera emateko modu bat dela ulertzea nahi dute. Bestea abandonatzen dute, alegia.

«**Breadcrumbing**»: Sare sozialetan bereziki ezaguna, ingelesezko hitz hau *breadcrumb*-etik dator, eta «ogi mamia» esan nahi du. Izenak berak dioen bezala, pertsona horrek “ogi apurrak” uzten ditu besteari itxaropena sortuz. Halere, bere barru-barruan, badaki egoera ez dela inoiz ezertara iritsiko; izan ere, pertsona ez dago inola ere horren alde egiteko prest, eta horrek min handia eragiten dio besteari, harremanak aurrera egingo duen itxaropena ematen baitio, baina inoiz ez duela aurrera egingo jakinda.

«**Benching**»: Ghosting-a bezala, benching-aren praktika harreman batetik ihes egiteko modu bat da, beste pertsonari aurre egin gabe. Lehenengoarekiko alde na-

gusia da benching-a erabiltzen duen pertsonak bere ohiarekin harremanetan jarraitu nahi duela, bera manipulatu ahal izateko. Hitz ingelesezko *to bench* esamoldetik dator: norbait ordezkotzeko aukerari utzi. Inolako konpromisorik nahi ez izatea baina aldi berean interes berekoia mugituta pertsona hori alboan mantendu nahi izatea, alegia.

«**Zombieing**»: Ghosting egin zigun eta mirariz “bizitzara itzultzen den” pertsona horren portaerari egiten dio erreferentzia. Desagertutzat jotzen genuen norbait gure orainera itzultzen da normaltasun osoz eta helburu batekin: harremana berpiztea. Gainera, testu mezu bat, whatsapp bat edo gure sare sozialetan mezuren bat uzten du. Baina itzulera hori ez da kasualitatea: zonbiak gure atea goseti jotzen du, bere egoa elikatu eta bere autoestimua indartu nahian. Ghosting baten bizipenak zerbaitetarako balio behar badu, horrelako zerbait berriro gerta ez dadin da.

«**Pocketing**»: Pocketing hitza ingelesezko *pocket* hitzetik dator eta «patrika» esan nahi du, *-ing* gehituz, ekintzaren esanahiarekin, hau da, «poltsikoan sartu edo gorde» adierazteko. Bikote harremanekin erabilia, zure bikotekideak lagun, familia eta inguruko pertsonen aurrean ezkututzen zaituenean gertatzen da. Adibidez, ez dizkizu bere lagunak aurkezten, beste pertsona batzuekin planak egiteko proposatzen diozunean aitzakia bat aurkitzen du beti, edo kalean ezagunen batekin gurutzatuz gero nor zaren ez azaltzeko urruntzen da.

Laburbilduz, maila publikoan zuen harremana ez da existitzen, ezkutuan dago eta intimitatean ikus daiteke soilik.

Akaso, ziber-harremanekin batera sortu den glosategi honetan aurkeztu ditudan zenbait hitz ezagutu ez arren, portaerak nahi baino ezagunagoak egin zaizkizu, pairatu edo eragin dituzulako. Dena dela, horiei izena jartzeko balio izatea espero dut. Gogorarazi nahi dut maitasunak ez duela zerikusirik ez mamuekin, ez zonbiekin; mintzen, zauritzen eta kaltetzen duen harreman ororen aurrean, hobe da distantzia ezartzea. •



«Ghosting»-a, harremanetatik desagertzeko modua. kolokon.com

{ asteari zeharka begira } **Mikel Zubimendi Berastegi**

# Txikimunduetan aspertuta

A steak Afganistanera begira jarri gaitu, tximista baten pare herrialdea hartu duten talibanei begira. *Déjà vu* bat dela aipatu dit minkideak, 1975ean Saigonen gertatu zena gertatu dela Kabulén, okupatzaileek buztana hankartean, ohorerik gabe, ihes egin dutela. Ez dakit Viet Cong eta talibanak alderatu daitezkeen, bai eta ez. Badakit talibanek beldurra ematen dutela, emakumea burka batean nola gatibatu zuten gogoratzen dugula, jihadismoa eta tribalismoa eta beste arrisku asko dituztela. Talibanak ez bezala, Viet Cong munduko nazio askapenerako mugimenduentzat inspirazioa izan zela, garaipen militarra posible zela erakutsi zuen ispilua.

Talibanena beste mobida bat da, zalantzarik ez. Baina minkideak aipatu bezala uzten du hausnarketarako dejadatxoa txokoan. Duela 20 urte, irailaren 11ren ostean abiatu zuten «terrorismoaren kontrako gerra» globalak munduko klan-destinitate eta insurjentzia guztiak desagerrarazi zituela uste zen, aro aldaketa bat azkartu zuela. Baina kurio-soa da, 20 urte beranduago, Afganistanen ikusi da oraindik hor segitu eta garaipena lortzea badutela. Ikusi da, bai horixe, britainiarrak eta sobietarrak odolustu zituzten zepo berdinean harrapatu dituztela estatubatuarrak; agian historia ez dela errepikatzen, baina errima bat badela.

Kabulera begira, Euskal Herrian abuztu betean gertatu diren beste kontu batzuk, ordea, deus gertatu ez balitz bezala nola igaro diren kezkatu nau. Denon diruarekin ordaindutakoa zen eta euskal espazio komunikatibo bat ardazteko eta zuntz optikoaren azpiegitura propioak eskuratzeko ezinbesteko genuen Euskaltel kapital funtsei saldu, putreetara bazkatzeko nola bota den adibidez. Eta uzten bazaie, den-dena salgai ipiniko dute, herri bezala balioa duen orori prezio bat jarrita. Eta ez, hemen ez da ezer gertatu, aizue! Abuztua da, oporrak inperatibo, terrazak, kultura eta botiloiairen ehiza teleberrietan bolo-bolo.

Edo Ertzaintzaz ez da hitz egin nahi. «Jusapol» eta halako jendilajeak, pipiak bezala, barnetik nola jaten ari den, nola abertzale identifikatu diren ertzainak mehatxatu dituzten, bala-zorroak takilletan nola azaldu diren; ez, hortaz txintik ere ez. Euskaltel putreei bota, Ertzaintza apurka-apurka «jusapol» bezalakoen txakurtegi bilakatzen, eta zertaz hitz egiten da hemen? Beste «txakur» horretaz, bertsolariaren eta Donostiako ZIUko buruaren arteko sesio horretaz.

Minkideak galdetu zidan ea hori nola den posible, baten edo bestearen alde hintxa batzuk bezala lerratzen ibiltzea, nor bere txikimundutan lehendakari. Pentsatzen egon naiz, eta gero eta konbentzituago nago gakoa aspermena dela. Jende bat aspertu egiten dela, aspaldi dagoela aspertuta eta, hain oker, horregatik egiten dituela egiten dituenak. Badakit esplikazio sentzilloa dela, agian sentzilloegia, baina bestela ezin dut ulertu popularizatzen ari diren «kirol» berri horrena.

Gero eta konbentzituago nago gakoa aspermena dela. Jende bat aspertu egiten da, aspaldi dago aspertuta eta, hain oker, horregatik egiten ditu egiten dituenak

Aspermena eta nagikeria intelektuala lehengusu propioak dira. Nagikeriak ezer ez egitera darama, eta, ezer ez egiteak, aspermenera. Nago aspermena sentitzeke ez liratekeela kezka horiek sortuko. Arazoa, ordea, aspermena garaitzeko inolako irabazi sozial eta erlazionalik gabeko distrakzioak egiten hasten zarenean dator. Ondo pasatu eta entretenigarria izan daiteke, baina distrakziook kausa justuak ahultzen dituzte. Aholkua libre: borondatea lantzea, edukatzea eta ahaleginarekin indartzea beti da gomendagarria. Ilusioak atrofiatuta badaude, inertzian kateatzen garelako, bultzada kreatiborik gabe, pertsonalki eta kolektiboki hortaz tiratuko duen bisiorik gabe. Aspermenak, beste behin, partida irabazita. •



Beñat Lasagabaster, Dazz klubean.      Jaizki FONTANEDA | FOKU

# infraganti BEÑAT LASAGABASTER

Gasteizko Alde Zaharreko Aiztogile kalean, «Kutxin», badago kontzertuak antolatzen dituen taberna bat, Dazz izenekoa. Ez da zuzeneko musika eskaintzen duen taberna bakarra, baina bai jende asko jazzera hurbiltzea lortu duena, lagun arteko giroan eta maila handiko musikarien laguntzaz, Beñat Lasagabasterrek sumatzen zuen hutsunea beteta.

**B**eñat Lasagabaster Galdos arrasatearra musikazalea da. Betidanik. Urte askoan DJ ibili da, bere herrian 18 urte zituela

hasita 40 bete arte. Denetarikoa musika jartzen zuen, batez ere jazz, funka eta soula. Azken urteotan, Gasteizko Aiztogile kalean Dazz taberna zabaldu zuenetik, ez du jardun horretan jarraitzeko astirik; hala ere,

musikarekiko harreman betean jarraitzen du, tabernan bertan kontzertu areto txiki bat kudeatzen baitu. 1998an joan zen Gasteizera eta zenbait urte geroago, Hego Amerikan denboraldi luze bat eman ondoren, Arabako hiriburura itzuli zen ideia argi bat zuela: Alde Zaharreko taberna batean jazz klub moduko bat zabaltzea.

## Dazz kluba

2015eko abenduan zabaldu zuen Dazz eta musika areto bihurtzeko ideia argi zeukan, beraz, «baina sekula ez genuen pentsatu heldu garen maila ematea, Euskal Herrian eta penintsulan erreferente bat izateraino», dio. «Oso pozik gaudе hasieratik jendearen erantzunarekin». Sekula ez zuten pentsatu bertan jotzen duen jendea Dazzera joan zitekeenik. «Eta ez etortzea bakanrik, zeren etortzen direnak normalean behin etorri eta irrikatzen daude bueltatzeko, ez dakit zer ematen dugun... tira, zerbait ematen dugu: batez ere akustika ona, soinu ona eta publikoaren eta artistaren arteko errespetua, musikarekiko errespetu handia, eta hori asko baloratzen dute artistek. Pandemia aurretik 140 lagun batzen ziren kontzertuetan, guztiak isil-isilik».

Lehen kontzertua 2016ko otsailean izan zen. Hilero bat egiten zuten; ondoren, bi egiten hasi ziren, batzuetan hiru; geroago, astean behin... eta hilean bost edo sei ere bai. Ordurako Beñatek bazuen halako heldutasun musikala. Gasteiz, Donostia, Getxo, Bartzelona, Madrilgo eta beste hainbat lekutako jazz jaialdi askotara joan ohi zen, eta kontzertuak antolatzen hastea erabaki zuenean, gaurko musika estilo askoren oinarri den horretara jo zuen: jazzera, hain zuzen.

Oraindik ere ez du jazz jaialdien pistarik galtzen, «zein non dabilen» jakin eta Dazzera gonbidatzeko.

## ASMO HANDIRIK GABE

Beñatek dioenez, konturatu dira arrakasta handia izan dutela, batez ere beren helburuari dagokionez. Hutsune bat sumatzen zuten eta hori bete besterik ez zuten nahi. Asmo handirik gabe, baina asmo argi bat zutela: elitistatzat jotzen den hori kalera, jendartera ekartzea. «Jende umila hasi zen jazza egiten, eta jende arrunta jazzera hurbiltzeko asmoa genuen». Estereotipoetatik atera nahi zuten, jazz «jende, musika edo gertaera elitistekin lotu izan baita, baina jazza kalean hasi zen, oso jende umilak jotzen zuen...». Eta lortu dute Kutxi kaleko taberna batean lehen mailako jazz entzutea, doan.

Izan ere, oraintsu arte, ia bost urtean, ez dute zentimorik ere kobratu jazz munduko lehen mailako artisten kontzertuetara joateagatik. «Guretzat ikaragarria izan da». 140 pertsonarentzako kontzertu batek izan behar duen aurrekontua kontuan izanda, errentagarria ote da Dazzen jarduna? Horixe galdetu izan omen diote Beñati. «Igande arratsalde batean tabernako kontzertu batera 140 pertsona sartzen zirenean, erdi hutsik zegoenean baino etekin handiagoa zegoen, ez? Alde handia dago. Beti ez dugu dirua irabazi, baina dirurik irabazi ez dugunean ere, beste zerbait irabazi dugu. Eta balantza jarrita, dena ez da dirua. Artista onak aurkitzea, guri katxe apalago bat ematea, horien bidez beste artista batzuek gure berri izan eta hona deitzea...».

Orain, pandemiak behartuta, aforoa murriztuta, sarrera ordaindu beharra dago kontzertuetara sartzeko. Aretoaren



Dazz klubeko arduraduna Aiztogile kaleko jazz aretoan. Jaizki FONTANEDA | FOKU

edukiera erdian, kontzertu bakar baten ordean, 40 lagunentzako emanaldi biko saioak egiten dituzte. Edonola ere, publikoak gustura ordaintzen ditu 10 euro eta eskerrak ematen dizkie, bertako musikak eta giroak gehiago merezi dutelakoan.

**SEKRETUA, LANA ETA SERIOTASUNA**

Urtero, Gasteizko Jazzaldia baino lehentxoago, jazz ziklo txiki bat antolatzen dute, Dazz Jazz izeneko. Iaz, Aiztogileko aretoan egin ezinik, Vital Aretoan izan zen, 150 lagunentzako edukierarekin. Aurten, berriz, Jesus Guridi Auditoriumean, eta askoz jende gehiagok izan du kontzertuetara joateko aukera.

Eurek ere espero ez zuten arrakasta horren sekretua zein den galdetzen diote lagun as-

kok Beñati: «Ez dago sekreturik. Batez ere seriotasuna, gauzak ahalik ondoena egin eta lana. Zuk ikusten baduzu aurrera badaola, eta gainera fruituak ematen badi-tu, filosofia horrekin jarraitu behar duzu».

Hasieran Beñatek bilatzen zituen artisten kontaktuak; orain, berriz, haietako askok deitzen diote berari, euren artean ahoz aho zabaltzen baitute klub berezi horren berri.

Euskal Herrian eta Estatuan ez ezik, Europan ere gero eta

**«Ez dakit zer ematen dugun... tira, zerbait bai: batez ere akustika, soinu ona eta publikoaren eta artistaren arteko errespetua, musikarekiko errespetu handia, eta hori asko baloratzen dute»**

**«Jazza jende, musika edo gertaera elitistekin lotu izan da, baina kalean hasi zen, oso jende umilak jotzen zuen...». Eta Kutxiko taberna batean lehen mailako jazz entzutea lortu dute**

ezagunagoa da, baita munduko bazter gehiagotan ere. «Esate baterako, Europara bira egitera datozen amerikar askok Gastei-

zera deitzen dute, Dazzen kontzertua egiteko eskatuz. Batzuek igual jaialdiak dauzkate, katxe handiarekin, eta libre daukaten egun batean Dazzera etorri nahi dute, nahiz eta gutxiago

kobratu, eguna gustura pasatzera».

Izan ere, entzuleek bezala, lagun arteko giroa topatuko dute

musikariek ere; hori bai, «betiere profesionaltasunez jardunda», nahiz eta halako jendearentzat bertako katxeak oso murriztuak diren. «Azken batean, jende hori, batek Oscar bat eta besteak hamaika sari eta sona handia izan arren, zu eta ni bezalakoak dira. Oro har jende onena, musikaririk onenak apalenak izaten dira, eta batez ere tratu adeitsua nahi dute».

Pandemia aurretik, 2019ko azaroan, BBK Jazz Saria jaso zuen Dazzek, EAEko jazz klubik onena izateagatik. Ezuste handia izan zen Beñatentzat.

Arazoren bat ere izan dute, ordea. Esate baterako, 2019an Udalak kontzertu kopurua murriztu nahi izan zuenean. Hilean bat baino ez baimentzeko asmoa zuen kontzertuak betie-



Dazz Jazz zikloaren iazko edizioko kontzertu bat. DAZZ

re ordutegia errespetatuz eta inoiz bizilagunekin arazorik bategabe egiten ziren arren. Tabernariak eta musikariak bat egin zuten neurri horren kontra eta bertan behera uztea lortu zuten.

LEHEN MAILAKO ARTISTAK

Dazz Jazzen bezala, ohiko kontzertuetan ere maila handiko artistak izan dira, Euskal Herriko, estatuko zein Europakoak, baita AEBetakoak ere, hala nola Ben eta Leo Sidran aita-semeak. Ben Sidran, besteak beste, Rolling Stones taldearen, Diana Roosen eta Eric Claptonen produktore eta Steve Miller Bandeko kide izandakoa, Dazzera itzultzeko irrikaz omen dago.


Haren seme Leorekin oso haren onak du Beñatek. New Yorkera doanean, ezinbesteko bisita du Brooklynen, han bizi baita Jorge Drexlerrekin batera

“The Motorcycle Diaries” filmeko “Al otro lado Del Río” abestiagatik Oscar bat irabazi zuen musikaria. Sidran gazteak kontzertu bi egin ditu Dazzen, eta aurtengo urrian hirugarrena egingo du. Bertan lehenengo kontzertua egin zuenean, denek «flipatu» egin omen zuten, baita Beñatek ere. Eta ez zuen gutxiago flipatuko musikari estatubatuarrek esan zionean hura bere bizitzako kontzerturik onena izan zela.

Beñatek behin esan zion bazekiela Ben Sidran urtero joaten zela Espainiara, Madrilgo klub famatu batera, eta luze ga-

**Leo Sidranek Dazzen lehen aldiz jo zuenean, «flipatu» egin omen zuten. Beñatek ez zuen gutxiago flipatuko estatubatuarrek esan zionean hura bere bizitzako kontzerturik onena izan zela**

**Lehendik jazza gustuko zuen jendea joaten da, baina beste batzuk jakin-minez hurbildutakoak dira, eta jakin-mina zaletasun bihurtuta, kontzertu gehienetara joaten dira**



Dazz klubak BBK Jazz saria jaso zuen 2019an. DAZZ

be semeak aita Gasteizko klubera etortzea lortu zuen. Ben Sidranek bertan jo eta, gehienek bezala, itzuli egingo da. Aurtengo pandemia dela-eta, ez du etortzerik izan, baina espero

dute datozen urtean etortzea.

«Guretzat horrelako jendea etortzea, Kutziko lokal batera jende hau etortzea, sekulako lorpena da», dio Beñatek.

Publikoari dagokionez,

lehendik ere jazza gustuko zuen jendea ziren batzuk, baina beste batzuk jakin-minez hurbildutakoak, eta jakin-mina zaletasun bihurtuta, kontzertu

gehienetara joaten direnak. Beñatek dioenez, ez da disko bat entzutearen parekoa. «Musika mota hori entzuten ohituta ez dagoena CD bat entzun eta aspertu egiten da. Neu ere batzuetan aspertzen naiz halako batean disko bat entzuten, baina zuzenean entzun eta ikusita, besterik da. Ordubeteko kontzertu bat, kristoren saxofoila-ria, kristoren bateria-jotzailea metro batera, ikuskizun ikaragarria da. Zuzenean entzun eta ikusteak ez du zerikusirik CD bat entzutearekin. Eta lortu dugun beste gauza bat da askotariko jendea elkartzeko, hainbat adinetako, hainbat estilotako jendea, eta gainera nahikoa fidelitate izatea». 18 urteko gazteak joaten dira, eta hortik gora... ikuslerik zaharrenak 87 urte dauzka. •

Xabier Izaga Gonzalez



Unai  
Gaztelumendi

iRRITZIA:



# ETA MAITA HERRIA... (ZORTZIGARREN ATALA)

Gerardo MUNGIA

Xabier espetxetik aterata, Maddirekin ezkonduko da. Idoia eta Patxi bi haurren aita-amak dira. Idoia lanetik bota dute bigarren haurraz erditu ondoren amatasun baja hartzeagatik. Langabezian dago «emazteki izateagatik».

### 12. JELKALDIA

Adiskideak Herriko ostaturat joan dira, Xabierrek me-rezi duen batzarriaren egitera eta ber denboran agin-  
tzera Xabier eta Maddi ezkonduko direla.

Txalaparta airearekin batera arizale urdinak taula-  
rat sartzen dira. Jelki dantzariak eta bertsolaria (erdi-  
ko atetik). Besta handia.

Maddi (Xabierri)  
134. Iduriz eni dagokit  
arra-jitearen berri.  
Zer erraten ahal dudan...  
Xabier, ongi etorri!

135. Presondegiz presondegi.  
Hinkili-hankala ibili.  
Zure familia, lagunak...  
Zazpi deabru ikusiz.

Xabier (Maddiri)  
136. Hilkarrean aritu naiz.  
Beti adorea zuket.  
Frankotan ahoan potets.  
Maitasuna duzu niketz.

137. Esker mila guzieri.  
Espainiako ziegan barda.  
Geldiarazi dituztenak  
tenore hontako taupada.

Bertsolaria  
1. Zure hutsuneak bizitza aldatu  
zigun zuritik beltzera.  
Baina beltzetik zurira doan  
ziaboga hementxe da.  
Ogi berria nahiz ez datorren  
gose zaharra asetzer  
zure egarria libre da eta  
ongi etorri etxera.

2. Nahiz eta orain mugi zaitezkeen

haizea bezain libreki  
joaten denak nora itzuli  
behar izaten du beti.  
Ez zaren arren inon egongo  
etxean baino hobeki  
zuk erabaki ezazu atea  
noiz itxi ta noiz ireki.

Hitzak: Sustrai Colina. Aireak: Haurtxo  
txikia negarrez dago.

Gero, dantzariak ohorezko aureskua  
dantzatzen dute.  
Arizale oro erretira.

### 13. JELKALDIA

Bizitzeak eta denborak aitzinerat segi-  
tzen dute. Idoia eta Patxi bi seme-ala-  
baren aita eta ama izan dira eta lanari  
lotuak. Nola ez ba? Beti beren sorlekue-  
tarat ahal dutelarik. Idoia bigarren ume-

az erditu ondoren eta amatasunaz bajan  
edo *arrêt de travail*-ean oraindik delarik,  
lan egiten duen jantzi-dendarat doa na-  
gusiaren deiari erantzuten.  
Jelki taulara Idoia eta Susana (ate urdi-  
netik). Jalki Puy, dendako nagusia, eta  
jende gehiago (kanpotik).

Puy (dendako nagusia)  
138. Aizu Idoia zurekin  
eleak behar trukatu.  
Ez da ehi erraitea.  
Ez zaitut nahi porroskatu.

139. Negozioa tikia da.  
Mantentzeko firin-faran.  
Ezin horrela segitu  
zu baldin bazaude bajan.

140. Zure dretxoak direla  
ongixko jakin badakit.



Atzean utzi ditu  
Xabierrek Espainiako  
espetxeak.  
Haira ARIZTEGI

Alta kontratua fini.  
Erabakia ez da aisit.

Idoia  
141. Hemendik karriketarat  
aterako naiz tristeki.  
Langabeziarat noa  
naizelakoz emazteki.

142. Nora goaz langileak?  
Bagara purtzilkeriak?  
Esklaboak heldubada?  
Aiseriak miseria.

Susana (langilea)  
143. Beti berdin guretako.  
Hotzikarak bahitu nau.  
Nolako ustekabea.  
Horrela, banpez eta brau!

Denak erretira.

3. SATANERIA

Jelki oholtzara Kerra eta Pokerra satan  
gehienak. Iduriz beren “lana” bukatu dute.

Kerra.  
144. Langile hauen artean  
gaitzaldiak eta herra.  
Anartean guretako  
dantzatzeko tenorea.

Pokerra  
145. Luziferri emaiok  
garaipenaren plazera.  
Ikustekoa baitik  
Patxiren amaiera.

Kerra  
146. Hesteak labaintzen zaizkidak  
jauzi batzuen egiteko.  
Zunbeltzeko bentatik  
Larrain-dantzan aritzeko.

Pokerra  
147. Inguruko dantzariak  
gera ditean bekaizti.  
Uxueko apezpikuak  
dezala behatza busti!  
Kar, kar, kar...

Jelki satanak, guziak. Xiberoako branlea  
dantzatuko dute. Gero satanak oholtza-  
tik erretira borta gorritik.

14. JELKALDIA

Idoiak umeak haurtzaindegian bildu di-  
tu. Langabea da egun. Etxerat doa osoki  
deboilaturik, lur jota. Bertan Patxirekin  
hasten da mintzoan, jantzi-dendan agi-  
tu ustekabea kontatuz.

Jelki Patxi, Idoia eta bi umeak (borta  
urdinetik).

Idoia  
148. Saltokitik natorkizu.  
Erabat deboilaturik.  
Kalera iraitzi naute.  
Oinazeetan plegaturik.

149. Gogo etsia banaute.  
Samindura kanpora behar.  
Norbait aka(ba)tuko nuke.  
Kolkoa dut usteltzear.

150. Nolaz ari zitzaidan  
jantzi-dendako nagusia!  
Sendi nuen nengoela  
zakurraren ipurdian.

Patxi  
151. Lan hobe badukezu.  
“Latsari onari ez zaio  
nehoiz falta latsarria”.  
Ez gara molda gaur artio?

152. Tristuraz ez kordokatu.  
Maitea, gora bihotza!  
Bizi nahiari estekatu.  
Entzun umeen asotsa.

Idoia  
153. Egia duzu amorosa!  
Banoa adiskideekin.  
Anartean arta haurrak...  
ta afaria, otoi, egin!

Idoia karrikara doa adiskideen bila, ba-  
rrrena arintzeko asmoz, eta Patxi etxean  
geratuko da. Badu zer eginik...

Laurak erretira. Türk andere-gizonak  
ilkitzen dira ate gorritik.

TÜRK andere-gizonak.

Beltxarga-anderea  
I- Haurra duzu negarretan.  
Ipurdia zikindurik.  
Oihalaren aldatzeko



Festa handia antolatu dute  
Xabierren etorrera eta hura  
Maddirekin ezkonduko dela  
ospatzeko.  
Haira ARIZTEGI

Nik behinik behin ez gogorik.  
La la la la...

Zirlinga-anderea  
II- Hara! Mutil, hire txanda.  
Hara! Troxen aldatzera.  
Belakia, kolonia,  
hoa orain xerkatzera!  
La la la...

Erregexupit-mutila  
III- Sentitzen dinat maitea.  
Istantean naun jinen.  
Tabakoaren erosteko  
ordu bat behar bederen.  
La la la...

Oilanda-anderea  
IV- Tapalahara ohartu duk  
edota halabeharrez?  
Uzkian pipermina ote?  
Hola, atratzeko banpez?  
La la la...

Türkak erretira. Taulada hutsik geratu da.

# Hemengoak eta hangoak

Antton Izagirre

**B**adut herrian Cheikh izeneko lagun senegaldarra. Lagun diot, bestelako adiskidetasunik gabe, berak saltzen baitizkit galtzerdiak, biserak, sukalde zapiak, marka faltsifikatuko galtzontzillo eta bestelako jantziak. Kale saltzailea da eta beste zenbait bezala hortik bizi da, nolabait bizi. Cheikh oso gaztea da eta, bizimodua aurrera ateratzeaz gain, bere ilusioa hango etxekoei noizean behin zerbait bidaltzea da. Ez du haiekiko atxikimendurik hautsiko, sortu den lurrarekiko eta bereekiko fideltasuna. Hainbat urteren ondoren haiek bisitatzea itzuliko da, hegazkin txartela erosteko adina aurrezten duenean.

Cheikh atzerritarra dela esango dugu, ez dela hemengo, kanpotarra, etorkina.

Koloreak, bizimoduak, hizkuntzak nabarmenduko du. Zertan datza atzerrikoa ala bertakoa izatearen aldea? Hemengo ala kanpotarra?

Hemengo enpresarien buruek esan berri dute, jaiotza tasak beherantz eta populazio zahartzen doan neurrian, langileak eta batik bat langile kualifikatuak faltako direla urte gutxi barru. Ez dela beste aukerarik: jaiotza tasen piramidea aldatu ala etorkinei bide eman. Dagoeneko zaintza edo gaizki ordaindutako zerbitzuetan joera hori ikusten ari garen moduan, gabezia bera industria mundura ere helduko dela aurreikusten da.

Enpresarien buruek ikuspegi ekonomikoa zuten kezkaren iturburu. Gaiak izan ditzake beste hainbat kezka iturri; hala

nola formazio edo prestakuntza ereduak, soldata, irabaziak, lan baldintzak eta abar.

Baina badu gai honek herri ikuspegitik kezkatu behar gaituen beste helduleku bat: hizkuntzarena, hain zuzen ere.

Nire lagun senegaldarrak, hemen jaiotako askok bezala, ez du euskara ikasi. Agian etorkizunean, hango edo hemengo prestakuntza tarteko, lanposturen jabe egingo dira, bertaratuko dira, euskara jakitea beharrezkoa dutela inork aitortuko ez dielarik.

Inor ez da ilegala, hangoa eta hemengo, bertakoa zein kanpotarra, baina herri bezala nor izateko, euskarak gure ezinbesteko lurraldea izan behar du eta hori erabakitzeke botere politikoa behar dugu. •

# Karrikan kalaka kolokan

Miren Azkarate  
Badiola

**A**lbistearen lerroburua irakurri nuenean, nire lehenengo erre-akzioa barre algara bat izan zen. Cadizko herri batek “*charla al fresco*” deiturikoa Unescoren ondare ez-material izendatzea eskatu du. Grazia egin zidan lehen gauza kakotx artean idatzitakoa da, andaluziarren umore bixi hori... Eta bigarrenik, burura etorri zitzaidan irudia: amona talde bat, euren etxeko atarietan, hondartzako aulkietan eserita hitz eta pitz.

Eta halaxe zen, bai, ez nenbilen oso urruti, finean babestu nahi dutena hori baita: eguneko beroak eta eguzkiak joa-

tean bertako biztanleak kalera atera eta auzoko senide edo lagunekin hitzaspertuak izateko ohitura ez galtzea.

Jakin-minak bultzatuta irakurtzen jarraitu nuen eta pixkanaka aurpegiko irribarrea desagertzen hasi zitzaidan eskaeraren zergatiak irakurtzean.

Teknologia berrien etorrerarekin, ohitura hau desagertzearaino kondentzen ari omen da. Gaur egun jendeak nahiago du telebistari, tabletari edo mugikorrekiko pantailari begira egon aurrez aurreko elkarrizketak izan baino. Ondorioz, usadio hau galtzeaz dago eta Algarrekiko alkateari otu zaio, hone-

kin oso kezkatuta, Unescori eskaera egitea.

Larria benetan honaino iritsi izana, eta ez da soilik penintsulako 1.400 biztanleko herri honetan gertatzen den zerbait, errealitate hau nonahi eta gero eta presenteago baitugu. Portzierto, gai honen aukeraketa lagun arteko “frexkurako solasaldi” batean egin nuen. Frexkurarena erraza da gure herrian, baina horrelako elkartzea eta hitzaspertuak gero eta zailagoak. Altxa ditza-gun begiak pantailetatik eta atera gaitezen kalera, plazara, ohitura zahar onak ez galtzeko besterik ez bada ere. •

{ koaderno } Itzea Urkizu Arsuaga

# Aje horri

**B**adira ia bi urte ajerik ez dudala; zalantzarik gabe, ama edoskitzaile izatearen onuretakoa bat. Ospatzekoa edo atsekabetzekoa izan liteke, txanponari nondik begiratzen zaion: aurkian, parranda oste-ko behe laino emozionalik ez sentitzea; ifrentzuan, berriz, euforiaren itsasoan olatu gutxiago surfeatu izanaren hutsunea.

Eskerrak patuak historiaren puntu kronologiko honetan munduratu ninduen: Covid garaia iturri agorrezina izaten ari da, gertatu direnak, ez direnak eta gerta zitezkeenak hausnarketa bilakatzen saiatzeko. Eta, kasu honetan, gorputzu dudan zerbaiten haritik tira nahiko nuke, Pfizer txertoaren bigarren dosiak itzuli baitit, berriki, bi urte atzera azkenekoz sentituen aje gorputzaldia: hotzikarak, goragalea eta buruko mina. Okupatzen duan espazioan kabituz ezina.

Udako ajea hori bakarrik balitz, gaitz erdi. Kontua da bestelakoak ere badirela udaren ajeak; bai, behintzat, nigan eta nire udetan. Ondoezak ez baitu inor momentu egokian harrapatzen, baina, zer gertatzen da sentsazio hori guk geuk ekoizten eta digeritzen dugunean?

Bikiniaren hilabeteek neure gorputzari arkatzez marraztuko nizkiokeen aldaketak errepasatzera naramate urtero. Igerilekua zeharkatzerakoan pausoa aldatzera, espazio eta esposizio hori deserosoak zaizkidalako. Mandatu estetikoaren aurka erabat posizionatzera, nahiz eta gero mandatua hipotalamotan itsatsita izan. Nire bizitzako udaren batean –hau iraupen luzeko lasterketa baita–, tripa pixka bat sartzera ere animatu izan naiz, mugimendu berean bilatuz eta galduz duintasuna.

Kontua da, ingurura begiratzera, emakume askori usain diezaiekedala aje-giro hori bera. Okupatzen du-

gun gorputza ez maitatzearen mina; molde zurruntan sartu nahia eta ezina. Eta, moldean eta neurrian sartzen direnen kasuan, bertan eternalki bizirauteko grina. Begiratu, bestela, igerileku ertzean eserita, postura perfektuari eutsi nahian, bizkarrezurra hipotekatzuten duten zenbaiti.

Nahiago izaten dut termino potolo eta abstraktuak saihestu, baina egia zera da, heteropatriarkatua ukigarria dela afera honetan ere; tira, berak ukitzen gaituela gu. Eta, parrandazale onenari bestondo egunean nola, emakume askori ia-ia entzun egiten zaigula pentsamendua, hondartza egunetan: «Ez dut gehiago autogorrototik edango». Hori, kasurik onenetan.

Gero, frustrazioa biderkatu egiten da, kaka horren guztiaren aurkako jarrera politiko bat eraikitzen egu-

Hizpidera datorkit «Trikua esnatu da»  
lanean irakurri dudan zerbait:  
naturalizazioa. Edo nola lortzen duen  
botereak azpian duenari sinetsaraztea  
leku hori dela berez tokatzen zaiona

nero-egunero saiatzen baldin bazara. Ze kristo, nik elikatzen al dut nire barruko munstroa?

Zorionez, uda nire apalategiarekin zorrak kitatzeko ere baliatzen dut, eta hizpidera datorkit “Trikua esnatu da” lanean irakurri dudan zerbait: naturalizazioa. Edo nola lortzen duen botereak azpian duenari sinetsaraztea leku hori dela berez tokatzen zaiona. Alegia baietz, nik elikatzen dudala nire barruko munstroa, baina ez dela erabat nire errua ere.

Hau guztia pentsatzen ari naiz, semea titian dudala. Eskuaz nire sabeleko azalari heltzen dio azkenaldian; aldakor eta bizi-emaile. Berak maite du haren biguna; bada nahikoa motibo, nik gauza bera egiteko. •

# «Sofan eseri eta plataforma bat edo bestea aukeratzeko unea oso garrantzitsua da»

**S**egurarra. Badira 20 bat urte Londresen bizi dela. BBCn lehendabizi eta Sky plataforma digitalean orain, ikus-entzunezkoen munduko aldaketak lehen leurretik bizitzen ari da. Taupada azkarreko bizitza profesionala da berea. Literaturak, berriz, Segurako sustraiak sentitzen eta munduari hortik begiratzeko laguntzen dio.

## Hamasei hilabete Euskal Herriera etorri gabe. Nola topatu duzu?

Hasteko, badirudi ez dela pasatu hainbeste denbora, baina inoiz baino gogo gehiago hartu dut. Hogeitaz urte daramatzat kanpoan, baina sarri etortzen naiz. Hilabete eta erdi edo bi hilabetez behin etortzen nintzen. Distantziaren kontu hori oso ondo kudeatuta neukan eta oso eroso sentitzen nintzen. Edozein asteburutan hegazkina hartu eta hemen egon nintekeela jakiteak oso eroso sentiarazten ninduen. Pandemiak hori izan du gogorrena, ezintasun hori. Hamasei hilabete horietan mugatuta sentitze hori gogorra izan da, karga emozional handia izan du niregan, nire haurrengan... Mugatua sentitzea ez zait gustatzen orokorrean. Nik beti aukerak irekitzen ditut eta gero ni naiz zer egin aukeratzeko dudana. Hori da nire bizitzaren kontzeptua eta bat-batean hori guztia moztu egin da eta gogorra izan da emozionalki.

## Seguratik Londresera salto handia dago.

Nik Segurara ditut sustraiak, sendoak. Baina nire bizitza orain ez da bateragarria Segu-

ran bizitzearekin. Nire bizimodua eta Euskal Herria bateragarriak egiten eta leku bakoitzetik onena hartzen saiatzen naiz. Orain Londresen nago bere orokortasunean horrek betetzen naudelako.

Hemen jaio izana, hemengo hizkuntzan eta kulturaz hazi izana nirekin daramat, baina horrek ez nau mugatzen beste leku batzuetara egokitzeko orduan. Ez da hau edo bestea, bizitzaren fase bakoitzean egiten diren aukeraketen ondorioa gara. Leku bakoitzetik onena ateratzen dut eta onartuta daukat ez dagoela leku perfekturik. Ni nola egokitzen naizen leku horietara, horrek dauka niretzat balioa.

Aspektu guztiak balantzan jartzean, Londresen pozik nago eta faltan nabaritzen ditudan gauza horietarako soluzioak bilatzen ditut: ahalik eta gehien hona etorri, literatura erabili nire kulturarekin harreman estua mantentzeko, haurrei euskaldun izatearen balioak transmititu, handik nire begirada ekarri hona etab. Hain zuzen, nire identitatearen eta euskaldun izatearen balioak indartu egin dira, kontzientzia fuertagoa daukat.

## Londresen hamar urte eman dituzu BBC katean lanean. Nolako esperientzia izan da?

Ni oso pribilegiatua sentitzen naiz. Izugarria da gizarteak marka horrekin daukan lotura ikustea. Haien kulturaz eta gizarte oso-oso garrantzitsua den eta oso-oso sartuta dagoen komunikabide publikoa da. Komunikaziorako tresna bezala, kulturarako gailu bezala, jendearengana nola eta zenbat iristen den bizitzea izugarria da. Nik hasieran ez nuen uler-

tzen, sekula horrelako zerbait ez nuelako ikusi. BBCn lan egiten duen jendeak benetan sinisten du gizarte ordezkatzen duen horretan. Motibazio edo pasio horrek barruan sortzen duen laneko giroak norberaren onena ateratzen laguntzen du. Hori niretzat izugarria izan da, asko ikasi dut jarrera horietatik. BBCn ikasi dudana, sortu zaizkidan aukerak, oso baliagarriak izan dira profesionalki garatzeko.

## Finantzaketa ere berezia da, ezta?

Bai, BBCren seinalea jasotzen duen etxe bakoitzak kanon bat ordaintzen du urtean. Gaurko plataforma digitalen antzekoa da hori, baina posizionamendua oso desberdina da. BBC zerbitzu publiko bat da eta erantzukizun eta betebeharrak publiko batzuk dauzka. Informazioa, hezkuntza, entretenimendua... oso kontu serioak dira eta oso oinarrian daude, horregatik inork ez du zalantzan jartzen kanon hori ordaindu behar duenik. Herritarrak ulertzen du bere gizartearen oinarrietako bat dela BBC. Egia da agian azken urteotan zalantzak sortzen ari direla, batez ere jende gaztearen artean. Agian ez dago haien entretenimendurako ezinbesteko aukeren artean eta horrek zalantzak sortzen ditu. Hemendik hogeitaz edo hogeitaz hamar urtera zein izango da eredu? Eztabaida hori dago orain mahai gainean.

## Finean jendartearen zutabeetako bat komunikazioa eta informazioa direla ondorioztat daiteke?

Espektatiba kontua da. Zer espero du herritarrak BBCtik?

## GARAZI GOIA

## KOMUNIKAZIOAN ADITUA ETA IDAZLEA

GAUR8ko leihoan ikusten dugu hilabetero

Londresen bizi den segurarra.

Telekomunikazioen munduaren abiada eta

literaturaren begirada pausatua, biak ditu

barruan. Euskal Herrian egon dela baliatu

dugu aurrez aurreko hitzordua egin eta

nahi adina leiho zabaltzeko:

komunikabideak, plataforma digitalak,

literatura, amatasuna, feminismoa...

Amagoia Mujika Telleria

Kalitatea, inpartzialtasuna, jendearekin konektatzen duten edukiak... espektatiba horiek hor daude, BBCk ezin du huts egin eta exigentzia maila altua dauka bere buruarekin. Beste herrialde batzuetan ere saiatu dira horrelako kanonak ezartzen eta ez da ondo atera. BBCren kasuan aspalditik datozen balioak dira, ezin dira egun batetik bestera ezarri. Ehun urtetik gorako ibilbidea bere osotasunean aztertu beharra dago BBCren errealitatea ulertu ahal izateko. Eta huts egiten duenean autokritika egiten du eta zuzendu egiten du akatsa. Ardurak eskatu behar dituenean eskatu egiten ditu. BBC ez da komunikabide bat bakarrik, kulturaren parte intrintseko bat da. Baina horren atzean lan bat dago; lehenetsuna dauka komunikazioak, irismenak, ezin dira beste gauza batzuk nahastu, ezin da politizatu...

**Badira lau urte Sky plataforma digitalean ari zarela lanean. Estrategia eta eraldaketa zuzendaria zara. Aldaketa handia, ezta?**

Bai. BBCn asko landu nuen negozio garapena, epe luzearako estrategiak –audientzietan, edukietan, telebista plataformetan, teknologian...–, etorkizuneko norabideak, BBCk non inbertitzen duen bere edukiak dohain izateko plataformetan... Hamar urte eman nituen lan horietan eta nire frustrazioetako bat zen nire lanaren fruitua ez nuela ikusten, gehiago zirelako epe luzearako proposamenak. Ikus-entzunezkoen testuingurua zein azkar mugitzen ari den ikusita –Europa mailan Londres ari da prozesu hori gidatzen–, iraultza horretan presenteago egon nahi nuela



Argazkiak: Jon URBE | FOKU

sentitzen nuen, gehiago definitzen zer gertatuko den hurrengo urtean, nire lanaren fruitua ikusten, audientziak nola erantzuten duen ikusten... Nire ibilbide profesionalean nire lanak zer inpaktu egiten duen ikustea garran-

tzitsua da eta inpaktu hori neurtzea zailagoa zen BBC batean.

Sky etxea oso garrantzitsua da Erresuma Batuan. 27 milioi etxe daude eta horien erdiek Sky daukate. Alemanian eta Italian ere oso sartuta da-

go. Europako ikus-entzunezkoen etxerik handiena da Sky. Baneukan gogoia nire lana modu ukigarriagoan ikusteko eta horregatik sartu nintzen hor. Azken bi urteotan Europa mailako Skyren streaming plataformaren estrategia zu-

zendari bezala ari naiz, erraldoi digitalekin borroka betean ari da Sky eta horrek energia asko ematen dit.

**Pandemia oso testuinguru interesgarria izan da plataforma digitalentzat.**

Bat-batean sekulako aukera topatu genuen gure aurrean, inoiz ez genuen pentsatuko horrelako abiadarekin azkartu beharko genituenik gure estrategiak. Jendeak inoiz baino denbora gehiago pasatzen zuen pantailen aurrean eta hori nola aprobetxatu zen gakoa. Berez azkar gentozen eta sekulako azelerazioa gertatu da; inbertsioak aurreratu behar izan ditugu, lan egiteko modua aldatu da, pentsatzeko modua aldatu da... Gure erronka izan da Skyren plataforma aukeratzen zuen jendeak gurekin ahalik eta denbora gehien ematea. Etxean beste bizpahiru plataforma izanda, Sky aukeratzea izan da gure erronka. Hasierako une horretan pandemiara azkarren egokitu ziren plataformek irabazi zuten, lehen hilabeteetan muturreko egoera horri etekin handiena atera ziotenak. Orain, urtebete baino gehiago pasatu denean, hurrena zer datorren da gakoa, nola mantendu behar dugun iritsi den gorakada hau, tontor hau. Herriarrek egunero lauzpabost orduz ikusten dute telebista eta harpidetzek gora egin dute. Gure erronka da hori nola eutsi, zein zerbitzu berri eskaini jendeari, nola lortu audientziekin konexioa lortzea. Ez da bakarrik edukiak eskaintzea, esperientziak eskaini behar ditugu. Bezeroak baino gehiago direla sentitu behar dute, haiengan pentsatzen dugula eta haientzat osatzen ditugula eskaintzak.

**Zer-nolako ardura. Lauzpabost ordu pantailaren aurrean dagoena ez da bakarrik entrettenitzen, hezi ere egiten da pantailaren bitartez.**

Bai, bai. Horren atzean psikologia dago. Horrelako mundu mailako etxe batean konturatzen zara erabakiak ez direla sinpleak. Helburu ekonomikoak daude, noski, baina ez hori bakarrik. Edukiek emozionalki sortzen duten lotura, kulturalki zer balio transmititzen dituzten, audientziak zerekin lotu behar duen marka... eduki onak izatea bakarrik ez da nahikoa. Garrantzitsua da, era berean, gertatzen diren mugimendu sozialekin nola posizionatzen den marka hori. Jendeari markaren inguruko pertzepzio bat sortu behar zaio, eskaintzen dituen edukietatik harago doana. Sofan eseri eta plataforma bat edo bestea aukeratzeko unea oso garrantzitsua da. Une hori kapitalizatzeko atzetik lan handia egin behar da.

**Kezkatzen zaitu horrek?**

Datuen mundu ikaragarri bat dago horren atzean. Datuak ondo erabiltzen badira, ikus-entzunezkoen funtzioa ondo interpretatzen bada, erantzukizun soziala kontuan izaten bada –informatzea, hezteak...–, horretan guztian oreka bat bi-latzen bada, ez nau kezkatzen. Baina helburu ekonomikoak hor daude eta borroka egin beharra dago emozionalagoak diren alderdi horiek ere zaintzeko. Ni marka baten atzean ari naiz, baina horrek ez du esan nahi indibiduo bezala ditudan balioak deuseztatu egin behar ditudanik. Lantaldean lan handia egiten dugu alderdi horiek zaintzeko. Ez da erraza, baina saiatzen gara. Lider onenak dira nire ustez



helburu ekonomikoak eta indibiduo bezala ditugun balioak ondo uztartzen saiatzen direnak.

**Telelanean aritu zara pandemian. Orain eredu hibridoan ari zarete.**

Bai, eredu hori indarra hartzen ari da Londresen. Uste dut eredu erabat presentzial hori amaitu egin dela eta orain normalizatu egin da lana eta bizitza pertsonala uztartu egin daitezkeela eta malgutasunak norberaren bertsio onena ateratzen laguntzen duela. Askok anplifikatu da lan egiteko modua hori. Bulegoan ‘egon beharrak’ nire bizitza pertsonaleko esparru batzuk mugatu ditzake, seme-alabak jasotzea adibidez. Eta akaso goizean etxean lehenago lanean hasteak edo iluntzean ordu pare batez aritzeak nire onena ematen laguntzen dit. Hori horrela dela ikusi da eta errespetatu egin nahi da. Eztabaida hori mahai gainean egon da. Ikusi da akaso etxean gaudenean lan batzuk hobeto egiten ditugula eta, aldiz, bulegoan aritzea

*«Uste dut eredu laneko erabat presentzial hori amaitu egin dela Londresen eta orain normalizatu egin da lana eta bizitza pertsonala uztartu egin daitezkeela eta malgutasunak norberaren bertsio onena ateratzen laguntzen duela»*

mesedegarria dela kolaboraziorako, sormenerako... Modelo hibridoak ezartzeko lan asko egiten ari gara eta ez dago eredu bakarra, malgutasuna beharrezkoa da. Baikorrena da eztabaida hauek normalizatu egin direla eta inork ez duela azalpenik eman beharrik egun batean etxean gertatzen delako lanean. Hau da lanerako modu berria eta pixkanaka, denok ekarpenak eginez, asmatuko dugu nola egin.

**Feminismoa aspalditik ari da esaten bizitza erdigunean jarri behar dela. Pandemian derigorrez gertatu da hori, baina orain kezka da lehengora ez ote goazen berriro, bizitza bazterretara bultzatzen... Londresen, zer giro?**

Nire kasua agian salbuespena da. Bai BBCn eta bai Skyn, marka handiak izanik, joerak lideratu behar dituzte. Familia eta lana bateragarriak izatea posible egiten duten erretorika horiek beti izan ditut inguruan. Horretan aitzindariak izan diren etxeetan aritu naiz. Horrek ez du esan dena per-

fektua zenik, baina beti izan dut atzetik hori guztia posible zela esaten zuen ahots bat.

Gero ni, pertsonalki, emakumea eta ama naizen aldetik beti aritu naiz borrokan lana eta familia ondo uztartzea posible dela erakutsi nahian. Hori posible dela adierazi didaten emakumeak izan ditut inguruan eta horri eutsi diot, oso aktiboa izan naiz borroka horretan. Zuzendaritza postuetara nahiko gazte iritsi nintzen eta borroka asko egin dut. Askotan izan naiz emakume bakarra gizonezkoen artean eta zeuden egiteko moduak hausteko borroka egin behar izan dut. Agian pandemiak hori erakutsi du, zaintzaren eztabaida mahai gainean jarri eta anplifikatu egin du. Egia da, hala ere, agian nire salbuespena dela eta segur aski enpresa txikiago askotan gauzak ez direla horrela egiten.

Ni baikorra naiz Londresen bizi dudana testuinguruarekin. Seme-alabak izan ditudanean askotan gehiago borrokatu behar izan dut neure buruarekin; ni kateatu nauten gauzak, nik neure buruari inposatu dizkiodan zenbait gauza, seme-alabei ez transmititzeko. Nire inguruan oso indartsuak izan diren erreferentziak topatzen saiatu naiz, nik lortu nahi nuen hori lortu zuten emakumeak. Oso garrantzitsua izan da hori. Nik ez dut nahi nire alabak nik izan ditudan zailtzak izatea eta hori oso presente izan dut.

**Feminismoaren borrokak zer-nolako oihartzuna dauka Londresen?**

Esposizio aldetik oso presente dago modu orokorrean; telebista programak, liburuak, hitzaldiak... horrek daukan ara-

zoa da jendeak oso erraz esaten duela ‘ni feminista naiz’ edo ‘ni feminismoaren alde nago’, baina interpretazio okerra edo norberari komeni zaiona izaten da askotan. Azaleko joera bat izan daiteke, sustraitik datozen arazoak eta joerak aldatzeko ahaleginik egiten ez duena, eta azaleko horrek are gehiago distortsionatzen du. Hori toki guztietan gertatzen dela uste dut. Hiper agerikotasun horrek badauka arrisku hori.

Londresen bai gauza onak eta bai txarrak muturrean ematen dira, modu anplifikatua. Ni baikorra naiz eta gertatzen ari diren gauza oso interesgarriak eusten diet; diskurtso oso aurrerakoiak, beste leku batzuetarako erreferentzia izan daitezkeenak. Nire joera da horietara gerturatzea eta aukera dudanean nire ekarpena egitea, ez gertzea azaleko ahots horietan.

**Literaturaren leihoa ere maitatu duzu. Zer da zuretzat?**

Oso barruan daramadan pasioa da. Kanpoan bizi naizenez, Euskal Herriarekin konektatzeko gailu bat ere bada, asko gerturatzen nauena nire hizkuntzara, sustraletara, identitatara. Nire bizitzan proiektu asko daude, erritmoa oso azkarra da, beti jendearen aurrean nago eta literaturak nire barrura sartzeko aukera ematen dit. Bien arteko oreka gustatzen zait. Literaturak nire beste alde bat erakusten du. Sormena oso garrantzitsua da egiten ditudan gauza guztietan, baina erantzukizuna sentitzen dut nire buruari egunero gogorazteko zer garrantzi daukan ni naizen horrek, nire hizkuntzak.

**Pandemian literatura piztu edo itzali egin zaizu?**



Blokeo moduko bat sentitu nuen. Bat-batean niretzat oso garrantzitsua den espazio pertsonala galdu egin nuen. Literatura egiteko orduan beste ni bat naiz, beste era batera proiektatzen dudana. Baina horretarako nire denbora behar dut, bakarrik egoteko, literaturaren inguruan ditudan lagunekin egoteko... hori itzali egin zen. Praktikotasunean ez neukan denborarik eta espazio

pertsonala galdu egin nuen. Eta horrek erabat blokeatu egin ninduen. Itxialdia oso gogorra izan zen fisikoki eta mentalki. Hilabete asko egon ginen etxetik lanean, haurrak eskolara joan gabe... nire bizitzako denbora bat, lehen nire denbora zena, beste zeregin batzuetara bideratu behar izan nuen. Duela bi urtetik liburu bat idazten hasita nago eta itxialdian ezin izan nuen ezer

egin. Agian orain ari naiz arnasa hori berreskuratzen.

**Amatasuna itxialdian. Espe-rientzia indartsua izan da.**

Niretzat gogorrena izan zen etxeko bulegoan hamaika orduz lanean egotetik, eskailera batzuk jaitsi eta ama perfektua izatera pasatzea. Salto hori egitea ezinezkoa zen. Bi bizitzen arteko bereizketarik ez zegoen eta ikus-entzunezko ibilbide

profesionala egiteko, ama izateko eta bikote izateko modua topatu behar nuen testuinguru berean. Fisikoki presenteago nengoen arren, emozionalki ez nengoen presenteago. Horren kontzientzia izatea eta borroka hori egunero sentitzea oso gogorra egin zait. Askok esaten dute ‘baina denbora gehiago egon gara seme-alabekin etxean’. Bai, baina niretzat ez da kantitatea, kalitatea baizik. Ni ama hobeagoa naiz lanetik edo beste testuinguru batetik natorrenean, pozik eta motibatuta natorrenean, lanetik etxerako aldaketa egin eta deskonprimatzeko aukera izan dudanean...

Askotan galdetzen diot nire buruari lanean nagoenean, ama naizenean, idazlea naizenean, bikotea naizenean... zein den nire bertsiorik onena. Itxialdian ohartzen nintzen ez nintzela nire bertsiorik hobereena inongo egoeretan. Hori izan zen gogorrena.

**Eta baimentzen al diozu zure buruari zure bertsiorik onena ez izatea?**

Hori da nire ahultasunetako bat. Oso perfektionista naiz eta beti presente izaten dut ni hartzailearen egoeran banengo, zer jaso nahiko nukeen nire partetik. Eta hori ematen saiatzen naiz. Oso exigjentea naiz nire buruarekin.

**Emakume askoren karga da hori, dena ondo egin nahia- ren zama.**

Ama naizen aldetik interesatzen zait guri jendarteak inposatu dizkigun jarrera horietatik askatzea nire seme-alabak. Autokritika handia egiten diot nire buruari eta ahalegin handia egiten dut kateatuta sentitu naizen gauza horien kontrakoa transmititzeko nire seme-alabei.



**Txelo Ruiz eta Montse Maritxalar**  
EHUko Informatika Fakultateko irakasle eta ikerlariak

# Diseinu Unibertsala edo Denontzako Diseinua

**D**iseinu Unibertsala (DU) paradigma berri samarra da. 1980ko hamarkadan, Ronald Macek (hautzaroan nozitutako polioagatik bizitza osorako gurpil-aulkian geratu zen arkitektoa) eta haren taldeak proposatu zuten DU kontzeptua. Hasiera batean arkitekturan erabili zen, desgaitasunen bat duten pertsonentzako leku irisgarriak sortzeko asmoz, eta laster zabaldu zen beste eremu askotara.

Produktuak, tresnak, gailuak, ondasunak, prozesuak, zerbitzuak eta sistemak diseinatzean, ahalik eta pertsona gehienek (haien adina, tamaina, gaitasuna edo desgaitasuna edozein izanda) erraz ulertu eta erabiltzeko moduan diseinatzeko filosofian oinarritzen da. Funtsezko baldintza da zerbait irisgarria, erabilgarria, komenigarria eta erabiltzeko atsegina egitea. Diseinu-prozesuan guztien beharrak eta trebetasunak kontuan hartu behar dira. Hots, edozer diseinatzean, berau erabili nahi edo behar duten pertsona guztien beharrak asetzeko diseinatu behar da, ez populazioaren gutxiengo baten mesedetan. Izan ere, populazioaren gehiengoari “gutxiengo” kolektiboaren parte izatea egoki dakioke, adinaren edo gaixotasun baten ondorioz mugikortasun edo ikusmen arazoak izateagatik, edo bestelako egoera desberdinengatik. Horrelako egoeretan teknologia lagun izan dezakegu: audio-liburuak; ate automatikoak; tekla, zenbaki eta karaktere handiak telefonoetan...


**Hezkuntza mundura ere, Ikaskuntza Diseinu Unibertsala (IDU) iritsi da: ikasleen arteko ezberdintasunak kontuan hartuz, ikasteko modu egokiak eskaini behar zaizkie.** Testuinguru hezigarri askotarikoak prestatu behar dira, ikasle guztiek aukera izan dezaten ikasteko, parte hartzeko eta inplikatzeko, bakoitzaren aukerak, mugak, zailtasunak eta lehenetasunak kontuan iza-

nik. Horretan ere, teknologiak laguntzen du. Adibidez, hitz-iragarle automatikoak lagungarriak izan daitezke, psikomotrizitate edo arazo neurologikoak direla eta, idazteko arazoak dituzten haurrentzat. Gaur egun kalkuluak egiteko kalkulagailuak erabiltzen ditugu, eta nork ez du erabiltzen hitz-iragarlea telefonoan mezuak idazten ari denean?

AEBetan, desgaitasunen bat dutenen aldeko legediak DUaren bilakaeran lagundu zuen. Munduko beste leku batzuetan, antzeko kontzeptuak garatu dira: Erresuma Batuan, Diseinu Inklusiboa; Europan, berriz, Denontzako Diseinua kontzeptua lehenetsi da.

Diseinurako eta Desgaitasunerako Europar Institutuaren Stockholmeko Adierazpenean (2004) azpimarratzen dute «Europa osoan, pertsonen aniztasuna inoiz baino handiagoa dela, adinean, kulturen eta gaitasunean. Gaur egun, gaixotasunak eta lesioak gaitasunak gure egunerokotasunaren parte dira. Gaurko mundua leku konplexua den arren, guk eraiki dugu, eta, beraz, gure diseinuak inklusio-printzipioetan oinarritzeko aukera eta erantzukizuna dugu. Denontzako Diseinua pertsonen aniztasunerako, jendarte inklusiorako eta berdintasunerako diseinua da. Ikuspegi hori erronka handia da planifikatzaile, diseinatzaile, ekintzaile, administrazioaile eta buruzagi politiko guztientzat».


**Beharrezkoa da garapen jasangarriko estrategia proaktiboetan, pertsona guztien bizi-kalitatea hobetzeko, pertsona guztiek parte har dezaketen jendarte bat lortzeko, jendarteak pertsona bere aniztasun osoan nola hartu nahi duen hausnarketaren ondorio dena.** Aukera-berdintasunaren eta guztion eskubideen errespetuaren balioak lehenesten dira. Teknologia gartzetan ere, Denontzako Diseinua ardatz hartu behar genuke, arrakala sakonagoak ez izateko. •



Pabo BUSATTO | Creative Commons

# BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



TEWIS MICHELSEN. COLLECTION MUSÉE BASQUE ET DE L'HISTOIRE DE BAYONNE/ BAIONAKO EUSKAL MUSEOA

## «ABRAHAM» PASTORALA ATHARRATZEN, 1899AN

1899ko apirilaren 16an "Abraham" pastoralara antzeztu zen Hauzen. Urte berean, maiatzaren 28an, pastoral bera jokatu zen Atharratzen, argazkia egina dagoen tokian. Georges Herelle Filosofia irakasle eta etnografoak, Baionan bizi zenak, Zuberoako pastoralari buruzko ikerketa batzuk argitaratu zituen "Revista Internacional de Estudios Vascos" (RIEV) eta "Gure Herria" aldizkarietan. Baionako Mediatekan utzitako bere koadernoetan jasota daude 1899an Hauzen eta Atharratzen egindako "Abraham"-en antzezpenen zenbait marrazki eta testu, baita beste antzezpen batzuenak ere. Georges Herellek dio, halaber, Baionako argazkilari bat kontratatu zutela Atharratzeko pastoralaren argazkiak egiteko. Iru-dien egilea Tewis Michelsen suediarra izan zen, 1860an Stockholmen erretratugile gisa hasi eta 1891n Lapurdiko hiriburuko Frederick Bastiat kalean bizitzera joan zena. 1904an Pierre Gelly baionarrak bere estudioaren ardura hartu zuen. "Abraham"-en antzezpeneko sei argazki oso deskriptibo gordetzen ditu Baionako Euskal Museoa; haietan, emanaldia-  
ren, ikusleen eta upel batzuen gainean ezarritako agertokiaren muntaketaren zenbait momentu ikusten dira.

GAUR8



*ireki gure leihua*

